

 BOOKTEGI

bai, koanto!

IDOIA ETXEBERRIA ELORTZA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

IDOIA ETXEBERRIA ELORTZA

Bai, koanto!

ZALDIBIA-ATAUN

1. LOTSEA

“ZER DA GAUZA BAKARRA norberak euki ez eta besteari ematen diona?”, asmakizuna bota du Rogeliok. Gazta zati bat du eskuan. San Isidro eguna da, baserritarren eguna. San Martingo elizako arkupeetan herriko lau artzainen gazta ipini dute probatzeko, ardo beltzarekin. Barazki posturik ez dago aurten. Urtetik urtera pobretzen ari da. Baserritarrak gero eta gutxiago dira.

“Lotsea”, esan du Rogeliok irribarre pikaroz. Jakin-minez begiratu bai, baina inork ez duelako erantzun. *“Hik lotsea zer dan ez dakik eta!”*, bota dio Juan Ramonek. Barre egin dute. Nola ez du ba jakingo!, pentsatu du Purik. Ez dagoela munduan lotsa zer den ez dakienik, ondo disimulatu arren. Eta lotsarik ez izatea ez dagoela ondo ikusia. Hori ere pentsatu du Purik, baina ez du ezer esan. Lotsa eman dio.

Umetatik hezur-muinetaraino sartu zioten lotsa, beldurrarekin batera. Besteek zer esango ote duten. Onartua ez izateko beldurra. Horregatik, isil-isilik jasan zituen senarraren ibilerak. Hura zelako tokatu zitzaiona. Hura zelako berarengandik espero zena: aguantatzea. Troskaeta tabernatik balantzaka ateratzen ikusten zuenean lotsa ederra sentitzen zuen. Auzo-lotsa. Errezatzen egoten zen, kortina atzean ezkutatuta, mozkorraldi txar horietakoa izan ez zedin. Zalapartaka eta builaka hasten zelako halakoetan, borrokarako pronto. Senarra ere lotsatzen zen, biharamunean, eta ezin izaten zion Puriri begietara begiratu. Ezta Saioa alabari ere.

Lotsa pasatu zuen alabarekin ere, 18 urterekin etxetik alde egin zuenean. Etxe okupa batera joan zen, gainera! Zeresan handia eman zuen herrian. Trapu zaharrak jantzita ibiltzen zela. Porroak erretzen zituela. Edozeinekin oheratzen zela. Denak esamesaka. Denetik esaten. Eta erruki begirada haiek. Hori zen okerreana. *“Ai neska, alaba bakarra ta ze penea!”*.

Urtebete da senarra hil zela eta hilabete batzuk Saioa etxera itzuli zela. Bere bizitzako pozik handiena eman zion amari. Ganbaran apartamentu txiki bat egokitu zuten harentzat. 32 urterekin berriro ikasten hastea erabaki zuen eta Soziologia ikasketak amaitzen ari da. Aurretik sukaldaritza ikasi zuenez, Troskaetako sukaldean hasi da lanean.

Familia normala izateko esperantza dauka Purik. Normala edo. Baina lotsa agertu da berriro ere. Saioa ez da ba hasi Ataungo emakumeei buruzko ‘ikerketa’ bat egiten! Bazterrak nahasten? Herriko kontu ilunei buruz galdezka! Esan zion: *“Aizan, nahikoa kontu ilun badiñau etxen,*

bestenak haizatzen ibiltzeko!”. Alferrik esan ere. Horretarako bueltatu ei da herrira. Gradu amaierako lana egiteko asmoa du horrexekin, herriko emakumeen kontuekin. Psikologoak esan omen dio bere terapiaren parte izan daitekeela. Ama ere elkarriketatu nahi du. Purik purrustada batekin erantzun zion: *“Bai, koanto!”*.

2. TROSKA I

TROSKAKO TERRAZAN, zigarroa erretzen. Gaur jai dut. Bazkalordua, jende gehien dabilen momentua. Mutiko bat ur bila joan da iturrira, etxetik pitxerra hartuta, aspaldiko garaietan bezala. Erdi ahaztuta neukan txorrotako ura zein eskasa den. “Paxkual iturri” deitzen diote iturri honi. Paxkual izeneko gizon bat hortxe egoten omen zelako beti, batekin eta bestearekin berriketan eta kotxeei pasoa ematen. Semaforoa ipini aurreko kontuak. Ez nuen ezagutu, edo ez naiz akordatzan behintzat.

Hauteskundeetako kartelak ipini dituzte, propio horretarako jarritako paneletan. EAJko eta EH Bilduko alkategaiak eta diputatugaiak. Ataunen erroldatu naiz. Hemen bozkatuko dudana lehen aldia izango da. Hemengoa naiz? Inongoa ez sentitzea zer den. Beldur nintzen nola hartuko ninduten, hainbeste urte eta gero. Beldur izugarria nuen. Baina ez. Galdera indiskretu batzuk entzun behar izaten ditudan arren, espero baino hobeto sentitu naiz. Esango nuke batzuk poztu ere egin direla bueltatu naizelako. Segituan eskaini zidaten lana ere. Troskaetako Marijok. Ez da gure ama baino askoz gazteagoa. Hamar urte, asko jota, baina bi mundu paralelo dira.

Gustatzen zait Marijo, ez delako konbentzionala. Arautik ateratzen da. Ilea motz-motz dauka, makinarekin moztua. Tindatu gabe, urdindua. Tatuajea. Betaurrekoak. Soineko bereziak erabiltzen ditu. Ez dauka aho-bilorik, gainera. Pentsatzen duena esaten du. Ataungo emakumeen futbol taldean jokatu zuen: Otso emek. Lehenengotakoak izan ziren Goierrin. *“Matxitoen moduan ibiltzen ginen, eredu maskulinoak imitatzen. Batzuk utzi egin zuen, mutil zaharragoek. Aldaketak onartzea ez da erreza”*. Taldeko bat, Anarro, Euskadiko selekzioarekin jokatzera ere iritsi zen.

Gu, ordea, “intsentsua jandako” familia batekoak gara: amona Felipa, elizkoia baino elizkoiagoa, jostorratza baino zorrotzagoa. Gure amari ez zion minifaldarik janzen uzten. Orain biguntzen hasita dago. Adina izango da. Orain bisitan ere joaten natzaio. Lehen ez nintzen ausartzen; ez nengoen haren erretolirik entzuteko prest.

Familia guztietan daude ardi beltzak. Gurean Axier eta ni gara errebeldeak. Anaia bat bezala da niretzat, beste ardi galdu bat da. Marikoi zoragarri bat. Donostian libreago sentitzen da hemen baino, klaro. Baina ni baino sarriago etorri izan da. Nik urteak pasatu nituen herria zapaldu gabe.

Astelehenean egon nintzen berarekin, Troskako gazta-tarta jaten, Baileys kopatxo banarekin. Loredun alkandora bat zeraman. Praka arrosa fuksiak. Nire idoloa da. Bere abenturak entzunda, txori kaiolatua sentitu nintzen. Kaiola estu eta luze batean preso. Zergatik bueltatu naiz?

Ikerketa, bai. Horregatik nago hemen, teorian. Baina ez da hori bakarrik. Lehenaldiko mamuak uxatzera etorri naiz, nire jatorriarekin adiskidetzera. Eta batez ere amarekin. Uste dut aitzakia bat behar nuela bueltatzeko.

Egia esan, ez daukat batere garbi ikerketa nola demontre bideratu. Zaldibiako dokumentua izan zen ikerketa egiteko gogo piztu zidana. 1646an Zaldibian atxilotu zituzten hamar emakume horiek, “eskandaluzko egoeran” bizi zirenak. Gai ona da ikerketarako: ezkondata egon gabe sexu harremanak izan dituzten emakumeak. Hamar emakume asko da hain herri txikirako. Ataunen ere izango da zer ikertua; ez dakit, antzeko kasuak. Gainera, haien ondorengo bat ere izan naiteke: amona Felipa Zaldibiakoa da. Arbola genealogikoa egitea komeni zait, badaezpada. Nork daki.

3. KARRAXIK I

Zaldibia, 1646ko ekainaren 7a

BARBARA AGIRRE NAIZ. 34 urte dauzket. Bi alaba dauzket, sei eta zortzi urtekok. Seme bat e euki non, jaio ta segittun hil zana. Hue biziko balitz, bi urte eta erdi eukiko littuzke. Nere umen aitte Don Martin Olano da, Zaldibiko Santa Fe parroko apaize. Ni enaiz beste iñokin egon. Zortzi hillabete badie harekin hitz egiten ez detela.

Barbara izan da deklaritzen lehena. Bi egun igaro ditu kalabozoan, herriko kartzelan. Migel aguazila joan zitzaion bila. *“Ni preso? Baina zeatik? Nik eztet ezer eiñ!”*. Garrasika hasi zen Barbara: *“Utzi paken! Utzi paken! Enaiz hemendik moittuko!”*. Aguazilak ez zekien zergatia azaltzen, baina esan zion joaten ez bazen ondasunak bahituko zizkiotela, eta bandoa zabalduko zutela herrian, denen aurrean lotsagarri uzteko. Irtenbiderik ikusi ez eta joan egin zen, umeak etxekonekoaren kargu utzita.

Don Juan alkatearen aginduz atxilotu zuten Barbara, herriko beste bederatzi emakumerekin batera. Ama ezkongabeak denak ere. Guztiek antzekoa deklaratu dute: ezkontzeko zina egin zietela, baina ez zirela beraiekin ezkondu. Atxilotutako gehienak elkarrekin aritzen dira haria egiten: Maria, Marijuana, Mariana, Bauti, Maritxu... Esan daiteke negozio txiki bat sortu dutela elkarrekin. Linuarekin haria egiten dute eta Villafrancako ehungile bati eramaten diote. Gero handik linuzko ehuna ekartzen dute bueltan, herrian saltzeko.

Alkateak esan du emakume horiena “eskandaluzko egoera” dela eta iraingarria dela “Jaungoikoarentzat, justiziarentzat eta herritarrentzat”. Zigorra merezi dutela, alegia. Barbarak esan zezakeen bere umeek “Jaungoikoaren bedeinkazioa” dutela, Don Martinek hori ziurtatzen ziola sakristian elkartu eta sotana altxatzen zuen aldiro. Gurutzea izaten zutela testigu. Ez du esan, intimoegia iruditu zaiolako.

Ez du esan ezta ere zergatik daramatzan zortzi hilabete Don Martinekin hitzik egin gabe. Ez du nahi beste inor atxilotu dezaten. Eta gutxiago haurdun egonda. Hori bai, Barbarak Don Martin bertaratu dadila eskatu du. Esan du ez baldin badator, bere garrasiak Ataundik ere entzungo direla.

Hamar emakumeek idatzi bat aurkeztea lortuko dute; sinatu gabeko idatzia, idazten ez baitakite. Bertan ipiniko du inongo arrazoirik gabe kartzelaratu dituztela. Gainera, aitorpenak hartu zaizkiela eta ez dela zigortzeko moduko ezer aurkitu. Horregatik, guztiak aske uztea eskatuko dute.

Aske utziko dituzte. Eta alkatea isildu egingo da.

4. ZITEA

TINDER. MIKEL, 30 URTE. Ez zaio aurpegia ikusten argazkietan. Mendia, eskalada, crossfit. Zaldibiakoa da, baina Beasainen bizi dela ipini du. Diskrezioa nahi du. Mutilek erakartzen dute, baina bere gizontasuna auzitan jartzen du horrek. Birjina da atzeko zulotik. Neska-laguna izan du: sei urte Nagorerekin. Lehen aldia du Tinderren.

Axier, 36 urte. Hamar argazki. Lau lehen plano, argazkietako batean kamiseta gabe. Ataundarra. Marikoi deklaratu. Donostian bizi da. Tinder, Grinder, POF... denetik probatu du.

Match egin dute. Axierrek argazkia eskatu dio Mikeli eta gustatu egin zaio. *“Guapisimoa haiz”,* esan dio. *“Biluzik irabazten duten horietakoa ematen dek, gainera”.* Hurrengo egunean bertan geratzea proposatu dio. Arratsaldeko bostetan. Mikelek ez dio esan nongoa den, ezta zertan egiten duen lana... diskrezioa nahi duela, hori bakarrik esan dio, lotsagorrituta. Apuro handia ematen dio. Brad Pitt bezala bisexuala den jakin nahi du Mikelek. Besterik ez.

Mikelek bulebarreko parkingean utzi du kotxea. Kioskoan dute hitzordua. Iritsi orduko damutu da. Ezin zen toki okerragoa izan: jende asko dabil, gehiegi. *“Mikel? Axier nauk”.* Irribarretsu gerturatu zaio, baina Mikelek kobrarena egin dio. Musurik ez. Faborez! Esan zion ba diskrezioa nahi zuela.

Hika hitz egin dio. Horrek ondo sentiarazi du Mikel, nahiz eta hitanoak dakarren gizontasun-eredua ez duen atsegin. Taberna batera joatea proposatu dio Axierrek. Mikeli iruditzen zaio ez dela ideia ona. Edonork ikusi ditzake. *“Nahiago dek Urgullera igotzen bagaituk?”.* Mikelek baietz. Gaztelurantz igo dira. Bidezidor estu batetik eraman du Axierrek. Ikusten da paraje hori ondo ezagutzen duela.

Harrizko galtzada estu batek tunel ilun baten ahora eraman ditu. Buelta eman duenean, muxu busti bat eman dio Axierrek ezpain ertzean. Mikel izerditan dago, baina ez du ihes egin Axierrek gerritik heldu eta paretaren kontra eraman duenean. Gustatu egin zaio, zer kristo. Mingaina aho barruan sartu dio eta aldi berean Mikelen gerrikoa askatzen hasi da.

—Zakila jan nahi diat.

Zer?! Mikelek alde bietara begiratu du. Inor ez inguruan. Zuhaitzak bakarrik. Baina ostia, ostia, ostia. Dron bat ager daiteke. Edozein turista ergel, mobil ostia batekin. Gero birala. Trending topic. Ez, ez, ez.

—Ze esatek! —baina behekoak baietz dio. Tente eta gogor ipini da. Bizitza propioa du.

—Lasai, motel. Barkaidak, bero-bero jarri nauk ta... igual azkarregi noak.

Azkarregi doa, bai. Axier ez da gelditu, hala ere. Gerrikoa bakean utzi du, baina ipurmasail biak estutu dizkio, bi eskuekin. Ezkerreko belarri-gingila miazkatzen hasi zaio:

—Mmmmmmm... Gustatzen zaik?

—Ba-ba, bai —babalorea ematen du. Ezin du behar bezala hitz egin.

Gehiegi da, kitto. Mikel arnasestuka dago. Geratzeko eskatu dio Axierri, eta geratu egin da. Baina ez da isildu:

—Hi ez haiz bisexuala. Hi ni bezain marikoia haiz —esan dio irribarrez, begirada pikaro batekin.

Aparkalekuan agurtu dute elkar. Axierrek esan dio “despedidea” kotxe barruan egin dezaketela.

Mikelek ezetz. Ez, ez, ez.

Orain badaki ataundarrak zergatik diren “otsok”. Txanogorritxo basoan bezala sentitu da.

5. BINGO!

“LINEA 6, BINGO 17”, esan du Tamarak, animatzaileak. Hirugarren eta azken partida hastera doa. Linea egiten duen lehenengoak 6 euro irabaziko ditu eta bingo egiten duenak, berriz, 17 euro. Hamabost egunean behin izaten da bingoa Atsedeen-Tokin. Bi mahaiak beteta daude; bata luzea, bestea borobila. Baina isiltasuna erabatekoa da.

Tamarak beste bolatxo bat atera du. *“Hogeita hamazazpi: hiru, zazpi”*. Aurrean dituzten zenbakiei arretaz begiratzen diete guztiek. Adi egon beharra dago. Boligrafoen bat edo beste mugitu da, X ipintzeko. Felipak X markatu du. Hurrengo bolatxoa: *“Hamahiru: bat, hiru”*. Hori ere badauka Felipak. *“Larogei: zortzi, zero”*. Baita ere. Bingo!

Zenbakiak ondo markatu dituela egiaztatu ondoren, dirua eman diote Felipari.

—San Gregoriotik behin etorriko, eta irabazi! —bota du Joxepak. Irribarrearen atzean inbidia izpi bat ezkutatzen ote den... San Gregoriokoak gutxi joaten dira Atsedeen-Tokira. Ezinikusi eta ikamika handiak egon ziren bi auzoen artean. Frontoia non egin ezin erabaki, eta urteak igaro zituzten frontoirik gabe. Azken urteetan giroak hobera egin du, baina oraindik badira beraien artean hitz egiten ez duten bakarren batzuk. Politika kontuengatik, besteak beste.

—Kapitalera etorri ta badakiñ... —esan du Rosak, burlaizez. San Martin kapitala dela, horrekin dabiltza beti. San Gregorion bezala lau etxe daude eta! Bera bai etorri zela kapitaletik. Donostiatik etorri zen Felipa Ataunera, San Gregoriora. Neskame egon zen han, hiru urtean. Hantxe ezagutu zuen bere senarra izango zena. Baina Rosak ez du horregatik esan, noski.

Euromillioia tokatu balitzait tira, baino 17 euro besterik ez dittun. San Gregoriorako taxia ordaintzeko ere ez litzaioke iritsiko. Ez du pentsatutakoa esan, eztabaidarik nahi ez duelako. Migelek eraman du San Martinera, seme gazteenak. Iluntzean bila joango zaio.

Bingoa amaitzen denean, txokolatea ateratzen dute kafe-makinatik eta pastak ipintzen dituzte mahai gainean. Felipa ez da geratuko. Saioa etorri zaio bila, biloba. Zain dauka atean. Saioari kariño berezia hartzen ari da. Ez dute sekula hain harreman ona izan. Desagertuta egon da denbora askoan. Umetan baserrira joaten zenean, orduan bai. Behiak gobernatzen laguntzen zion. Aspaldi.

Martintxonean, kafetegian, ezingo lukete lasai egon. Etxera joan dira, ganbarara. Ez dago igogailurik, baina Felipak arin igo ditu eskailerak. Txokolatea eta gailetak eskaini dizkio Saioak. Biloba erdi biluzik dagoela iruditu zaio, eskote handi horrekin eta izterrak agerian. Hoztu egingo dela eta tapatzeko esan dio Felipak.

—Amonaaaa, ez dauket hotzik.

Saioak grabagailua atera du. Zaldibiako kontuak jakin nahi ditu. Amonak ez daki ezer 1646ko dokumentuari buruz. Nola jakingo du ba? Zaldibian atxilotutako emakumeena entzun duenean, ezkiozaleei buruz hasi da hizketan.

—Ezkioko Ama Birjiñea, bai. Ezkiozalek. Krixton ixtorik die, e! Gure izeba Kontxita dettenittu zuen, ezkiozalea zalako! Arbik egosten ai zala su bajun, kaldera haundi baten, txerrintzat-ta; ta hartu ta eraman eiñ zuen. Gure amak kontatzen zun. Goiz Eguzkiko Tomaxa amona-ta, haik e detenittu eiñ zittuen. Dominikan ahizpa ta ama re bai. Ez dakit zenbat zien. Behintzat Zaldibiko aiuntamentun eon zien hoik, dettenittuta. Robustiana re bai. Eta geo, Ondarretara eaman zittuen, kartzelara. Ta ze eiñ zuen ba emakume hoik? Errezatzea besteik etzuela eiñ. Errosarioa. Ezkioa jun, ta Ama Birjiñea azaltzen zala eta erreza, besteik etzuen ezertxo re eiñ haik.

Zortzi hillabete ta erdi pasa zittun izebak kartzelan eta Dominikan amak ia urte ta erdi. Multa pagauta atea zien. Gero itten zien Zaldibiñ elizan, Jaunik etzien ematen, komunioik etzien ematen. Gure amai re ez, e! Hue re inoiz jun emen zan Ezkiora ta... Mezeta Ordizira jutun hasi zien ordun.

—Amona, baino zeatik detenittu zittuen? Ez det ondo entenditzen...

—Elizek etzon Ezkioko Ama Birjiñea onartu, umea. Sekta bat zela esaten zuen. Gorrik ziela esaten zuen. Gorrik irabazteko errezatzen zuela. Aitzaki hori jarri zuen. Gerrea zetorrela, ta errezatzeko, hoi esan emen zon Ama Birjiñeak. Eta asmau zon: geo gerrea etorri zan. Gure amak kontatzen zon hoi. Gerra aurreko kontuk die, baino batzuk geo re jarraitu zuen Ezkiora jutun.

Nola izango ziren ba gorriak? Eta nola demontre jarraitu zuten mezetara joaten, Elizak onartu ez bazituen? Saioak ondo ulertu gabe jarraitu du.

6. TROSKA II

HEMEN EUSKAL MUSIKA jartzen dute eta eskertzen dut. Hertzainak, Izaro, Katamalo, Mikel Urdangarin... Regetoirik ez. “Bildu, poztu eta berotu” hitzak daude egurrean zizelkatuta, barra gainean. Biltzeko eta pozteko leku ona da Troska. Eta alkoholak berotu egiten du, hori badakigu. Taberna leku ona da kontu ilunak jakiteko. Alkoholak mingainak askatzen ditu. Baina hauspokerietarako ere ona da. *“Umeek eta mozkorrek egia esaten dute”*. Zeinek asmatuko ote zuen gezur hori? Gure aita fenomeno bat zen gezurrak asmatzen, zurrutari ematen zionean bereziki. Nik ere ume-umetatik ikasi nuen gezurrak esaten.

Edan txarrekoa zela? Bai. Baina aita ez zen alkoholikoa. Esan nahi dut alkohola ez zela bere arazo bakarra, ezta handiena ere. Edan gabe ere bazekien zakarra izaten. Despota da hitza. Ama menpean hartuta zeukan. Uste dut etxean ikusitakoa errepikatzen zuela. Aitonak amona tratatzen zuen moduan tratatzen zuela emaztea. Hutsaren hurrengoa balitz bezalaxe. Eta gure ama, makilakadak jasotako zakurra bezala, beti otzan. Ezin nuen amaren jarrera hori jasan. Gorroto nuen horregatik. Ondorio horretara iritsi naiz terapian: ama gorroto nuen. Gero nire burua gorrotatzera iritsi nintzen. Ama ‘abandonatu’ nuelako. Hori ere bai.

Tabernan kontu ilun ugari kontatu dizkidate. Gezurra diruditen egiak eta egiantza duten gezurrak. Emakumeen trafikoan aritu zen kamioilariarena, adibidez. Portugaldik Iruñera eramaten omen zituen, aldiro hogeit hamar emakume. Edo “Aposaia” deitzen zioten apaizarena, Astigarraga auzoan bizi zena. Herrian ezkondu behar zuten neskek astebete pasatzen omen zuten berarekin, “ezkontzeko balekoak ote ziren frogatzeko”. Noizko kontuak izango ote dira?

Jaiotzean hil eta simaur artera botatzen zituzten umeen kontuak ere entzun ditut. Gehienetan intzestuaren ondorioz jaiotakoak izaten ziren. Katakumeak balira bezala botatzen zituzten. Batzuetan ez ziren negar egitera ere iristen. Aitek haurdun utzitako alaben historiek ere oilo-ipurdia jarri didate: neska gazte bat moja bidali zuten... eta beste bat Santa Ageda eroetxean sartu zuten, sano egonda; umea Donostiako familia aberats bati eman omen zioten. Hantxe zoratuko zen. Haurdunaldiak ezkutatzeke, ohikoena jaioberriak Fraisorora eramatea zen. Gero eta informazio gehiago izan, okerrago nago. Hau ez da terapeutikoa! Loia galarazten dit. Ez dakit gehiago jakin nahi dudana.

Gehiegi ari naiz erretzen azkenaldian. Irudipena daukat lehen trafiko gutxiago zegoela hemen. Nora kristo doa hainbeste kotxe? Zenbat furgoneta eta zer monobolumen... a zer nibela! Orain ezingo lituzkete lehengo apustuak egin: kotxe lasterketak San Martindik San Gregoriora, hiru kilometro martxa-atrasean. Asko geratu ziren errepide bazterrean.

Lehen, goizean, Aldasoro pasatu da ardiekin, iturri ondotik. Errepide nagusitik etorri dira eta bidean gora eraman ditu ardiak. Buru-keinua egin diogu elkarri, agurtzeko. Ilusioa egin dit. Ez dakit noiz arte ikusiko ditugun halako estanpak. Mobila atera eta argazkiak ateratzeko bulkadari eutsi behar izan diot. Ez nuen turistarena egin nahi. Aitortu behar dut hunkitu egin naizela. Malenkonia arraro bat erne zait. Zahartzen ari ote naiz?

7. KARRAXIK II

HOGEI EMAKUME sartu dituzte kamioian, Bragako poligono industrial batean. Hori izaten da kopurua, ez dira gehiago kabitzen. João ok sobrea eman dio Joxeri, betiko legez. Hogeia argazki daude barruan, karneterako ateratzen diren tamainakoak. Hogeia emakumeen argazkiak dira. Erdetik moztuta daude: beste erdiak Iruñera bidali ditu João ok, postaz. Emakumeak entregatzen dituztenean, bi erdiak elkartuko dituzte eta eramandako emakumearekin konparatu. Bestela ez diete ordainduko. Bidaia luzea da, ez dira beti iristen. Gerta daiteke kamioilaria emakumeren batekin enkapritxatzea ere eta bidean ordezeko bat bilatzen saiatzea.

Egun osoko bidaiaren ondoren, Ataunera iritsi dira. Bero handia egin du eta akituta daude. Kamioiak labe bat zirudien. Iluntzen ari du. Oilategietan sartu dituzte emakumeak, ohiko oilategietan. Ixxxxo. Isilik egoteko keinua egin die Pedro Marik, Joxeren laguntzaileak. Komunikazioa murrizta da, ez baitaki portugesez. Normalean nahiko isilik egoten dira eta ez dira ihes egiten saiatzen. Badakite bestela atxilotu egin ditzaketela. Gehienak brasildarrak dira eta paperik ez dute. Ura, ogia eta gazta eman dizkiete. Eta manta batzuk.

Goizeko zazpiak dira. Lizarrustirantz doaz, kamioian sigi-sagaka. Bidaiaren azken txanpa da. Ondo bidean, zortzietarako helduko dira. Garrasiak entzun dira atzeko aldean. Ez dakite zer gertatzen den, baina larria behar du izan. Bide bazterrean geratu dira. Emakumeetako batek konortea galdu duela dirudi. Joxek pultsua hartu dio: hilda dago. Emakumeen garrasiak gero eta ozenagoak dira. Edonork entzun eta ikus ditzake. Gorpua ahal bezala atera dute eta zanga batean bota dute. *“Nola utziko diagu hemen botata?”*, esan du Pedro Marik. *“Lasai, napar-txerrik jango ditek”*, Joxek.

8. ARGAZKIE

GIZON BATEK bikotekide ohia hil du, Orion. Parke bateko banku batean eserita zeuden. Bonba bat leherrarazi ote duen, kartoizko kaxa batean sartuta zeramana. Emakumea hil eta bere buruaz beste egin du. Ezin izan dut ondo lo egin. Ez dakit zergatik demonio ikusi nuen albistea. Argazki hori. Kiroleko zapatiladun hanka bat, zilar koloreko manta azpitik ateratzen. Nahikoa eszena guztia imajinatzeko. Ohean buelta eta buelta, burura zetorkidan behin eta berriz. Amorruekin eta tristurarekin batera. Nazka ere bai. Zer ostia! 2023an eta oraindik horrela. Orain esan dute ez zela lehergailua, eskopeta batekin izan dela. Eskopeta zeramala kaxan. Berdin dio. Emaizta bera da.

Jaiki naizenean, ama negarrez ikusi dut sukaldean. Begiak gorri, kafesnerik nahi dudana galdetu dit. Disimulatzen saiatu da. Ez zuen hitz egin nahi, baina astuna naiz eta badaki. Aitortu dit bere burua ikusi duela hor. Emakume horren lekuan, manta horren azpian. Dibortzizatzen bazen, bere buruaz beste egingo zuela esan omen zion aita behin. Amak hor jarraitu zuen. Bizirik, baina hilda bezala.

—Ez det uste kapaz izango zenik.

—Zertarako, ama? Suizidatzeko ala zu hiltzeko?

Iristen da momentu bat disko gogorra bete egiten dena. Ez da gehiago kabitzen. Hari mataza korapilatu egiten da eta ezin da askatu. Ezin dira hariak lotu. Iristen da momentu bat geratu beharra dagoena. Eta isiltasuna bilatu. Aurrera jarraitu ahal izateko.

9. JUPITER

MAIDERREK ESAN ZIDAN: “Jupiterrera joan gaitezke”. Jupiter, Marte, Saturno... Berdin zait nora. Ataundik atera beharra neukan eta Zaldibiara etorri naiz. Sukaldaritza ikasten nenbilela ezagutu nuen Mainer. Telefonoz hizketan egon ginen atzo. Esan nion ez dakidala nondik nora jo, blokeatuta nagoela. Zaldibiako liburutegian ezkiozaleei buruzko libururen bat badagoela uste du. Interneten argazki batzuk aurkitu ditut: trantzean dauden gizonak eta emakumeak, baita umeak ere. Begirada zeharo galduta. Inpresioa egiten dute.

Joxepanen nago Mainerren zain. Autobusean etorri naiz. Autobusa zaharrek eta atzerritarrek soilik erabiltzen dute. Egia esan, kotxe gabe galduta zaude hemen. Eta Ataunen hemen baino okerrago, auzoak sakabanatuta daude eta. Kotxerik ez daukan bakarretakoa izango naiz han. ‘Dedo’ egiten ere hasi naiz, nerabea nintzenean bezala, baina orain ez dago modan.

Mainer presaka iritsi da eta ebaki bat eskatzera sartu da tabernara. Laster Aioraren bila joan beharko du eskolara. Amonaren etxera eramango du, baserrira, eta berriz bueltatuko da. Tarte horretan liburutegira joango naiz. Elkarrekin bazkalduko dugu eta errekan bainatuko gara, Jupiterren. Primerako eguraldia egiten du.

Maripirekin egon gara hizketan. Mainerrek ezkiozaleei buruz galdetu dio eta azkenean gurekin eseri da mahaian. Ezkiozaleena sekta bat dela esan du, *“moral oso estuko jendea”*. Oraindik bizi omen da gizon ezkiozale bat Zaldibian. Bigarren Errepublika garaian agertu zen Ama Birjina, estatu laikoa aldarrikatu zutenean hain zuzen ere, eta hori ez omen da kasualitatea: beste toki batzuetan ere halako egoeretan gertatu omen ziren agerpenak. Fedea arriskuan ikusita, alegia. Ehunka pertsona hasi ziren Ezkiora joaten. *“Sobra ere taxista batzuk negozio ederra izan zitenan ezkiozaleekin”*.

Ezkiozale batzuk nabarmendu egin ziren: Ama Birjina ikusten zutenak, haren hitzak entzuten zituztenak, begiak buelta emanda. Erdi santuak zirela uste zuten, kazetariak argazkiak atera zizkieten eta protagonismoa kentzen zieten apaizei. Ez zen serioa. Zer arraio, Jaungoikoaren hitza apaizek soilik zabaldu zezaketen. Horregatik jazarpena; horregatik gorritzat hartzea; txapel bakarraren azpian ez dira bi buru kabitzen. Ezkiozale askok Ezkioko Ama Birjinarengan sinesten jarraitu zuten, hala ere.

Orain herrian beste sekta moduko bat dagoela aipatu dute: Eliza ebanjelistakoak, errumaniarrak. Familia horretako emakumeetako bat zortzigarren umearen esperoan omen dago. Jainkoak emandako guztiak hartzen dituzte, gure amonen garaian bezalaxe. Felipak ere zortzi izan zituen. *“Gure amak bi bakarrik izan zizkiñan, baiña inpernura kondenatuta egon hunan hue! Don Modestok sermoian esan omen ziñan ume gutxi zittuenak inpernura jungo ziela eta gure ama, gaixoa, larri! Bai ba, bi gutxi zalako!”*. Maripik Don Modesto aipatu du eta soka luzea ekarri du horrek.

Maider joan denean, Maripirekin geratu naiz berriketan. Esan dit Don Modestok herri borrokalaria bihurtu zuela Zaldibia. Apaiz frankista omen zen, pulpitutik egundokoak esaten zituen. Erresistentzia moduan, herria abertzaletu egin omen zen eta Elizatik urrundu. Gainera, doktrinan umeak beldurrez airean edukitzen omen zituen, edozein huskeriagatik astintzen zituelako. Eta berriz agertu da gai bera: badirudi Don Modestok ere neskaren bat haurdun utzi zuela... Baina Maripik ez dit xehetasunik eman. Haren ondorengoa ondoko mahaian eserita egon daiteke.

Migel Irastorzaren kasua ere kontatu dit. Erreterian zegoen maisu, preso hartu eta fusilatu zutenean. Ondarretako kartzelan zegoela, etxekoei esan zien bere maisu-postua nahi zuen apaiz batek salatu zuela. Egia ote zen ikustera joan zen anaia eta hantxe aurkitu zuen apaiza. Candelaria arreba Ama Birjinari loreak ipintzera joaten zen Elizara, baina ez zuen gehiago apaizen sermoirik entzun. Hori izan zen apaizen kontra protesta egiteko bere modua.

Jaioberritan akabatutako umeen berririk baduen jakiteko aprobetxatu dut. Maripik amari entzun omen zion baserri batean umea sardearekin hil zutela; *“inzestu kasuren bat izango hunan”*. Ez diot gehiago galdetu. Banekien, galdetuz gero, kontatu egingo zidala.

Maider bueltatu denean plater konbinatuak jan ditugu. Nik txipiroiekin. *“Osinberdeko ura”* dioen kristalezko botila atera digute. Ur ona dute hemen. Maider pozik ikusi dut. Ilusioz kontatu dizkit oporretako planak. Mexikora doa lagun batzuekin, hamar egunerako, alaba udalekuetan dagoen bitartean. Juleni ez dio grazia handirik egin eta kuadrillako batek ere esan zion: *“Julen bakarrik utzita?”*. Ba bai. Julen ez da ume bat. Moldatuko da. Baina mila esplikazio eman beharko ditu oraindik ere. Dena elkarrekin egiten duten bikote aspergarri eta inbidiosoei batez ere. Ni ere gustura joango nintzateke Mexikora.

Azkenean ez gara Jupiterrera joan bainatzera. Ez dakit izenak nork asmatzen dituen hemen. Jupiter deitzea ere ur-jauzi bati... Acapulco izeneko baserri bat ere ba omen dago. Unanitako putzuan bainatu gara azkenean. Txukundu egin dute eta egurrezko eserleku bat ipini dute erreka bazterrean. Bazkalostean joan garenez, ez zegoen inor. Burua ur azpira sartu dudanean, erreka gainetik pasatu zait eta kezka guztiak desagertu egin dira.

Bainatu ondorengo zigarroa txortaldi baten ostekoa bezain ondo sartu zait.

10. KARRAXIK III

UME JAIOBERRIAREN NEGARRA entzun da aldameneko baserrian. Bazekiten gertatuko zela, Juanita berriro tripa handiarekin zegoela. Hilabeteak zeramatzan herrira jaitsi gabe. *“Gaixo hori, ez dezu bizin arten asko iraungo”*, esan du etxeakoandreak eta kandela bat piztu du.

Puntukotxe garrasiak entzun dira. Danba-danba, atea jo dute. Juanitaren aita da, Basilio. Laguntza eske dator, larri. Juanita odolusten ari da. Mieltxo da azkarrena eta medikuaren bila bidali dute: *“Azkar, mutikoa, hil ala biziko kontue dek eta!”*.

Don Antonio etorri da eta Juanitari odol-jarioa etetea lortu du. *“Hilda jaio da”*, esan diote. Medikua segituan konturatu da ezetz. Haserre esan du ume hori ez dela hilda jaio, ito egin dutela. Lepoa bihurritu diotela. Guztiak isildu dira. Juanitaren negar isila soilik entzun daiteke.

Elizaraino umea besoetan eramatera zigortuko dute Juanita. Hala, herriko guztiek jakingo dute zer egin duen. Izenik gabeko neskatila hilerriko linboan lurperatuko dute.

11. AMESGAIZTOA

NEGAR MALKOTAN ESNATU NAIZ. *“Hemen nao, hemen nao”*, egiten nuen garrasi, baina inork ez zidan entzuten. *“Hemen nao! Hemen nao!”*. Jentilen urrezko ‘sobrekamea’ neukan gainean, iltzeekin lotuta, eta ezin nintzen ohetik atera. Azken bi egunetan Barandiaranek jasotako ipuinak irakurtzen ari naiz, gauero. Eta joan zen astean ipuin-kontaketa saio batera ere joan nintzen. Hortik ametsa.

Lamiak. Murumendiko Mari. Tartalo. Jentilen etorrera. Lan handia egin dute herrian mitologiarekin. Lan ederra. Barandiaranen liburuak betaurreko moreekin ari naiz irakurtzen. Barandiaran gizona zen. Eta apaiza. Seguruenez ez zioten dena kontatuko. Eta seguruenez ez zuen dena idatziko.

Barandiaran Museora ere joan nintzen. Autobusean. Turisten pare. Euria ari zuen. Museotik oinez bueltatu nintzen, erreka ondoko bidezidorretik. Putzuz putzu saltoka. Sara etxearen parean imajinatu nuen Joxemiel, bere sotana luzearekin paseatzen.

Itsasorik gabe ezingo nukeela bizi pentsatzera iritsi nintzen, baina konturatu naiz erreka murmurioak ere asko lasaitzen nauela. Ura entzuteak. Agauntza erreka bazterrean egoten naiz eserita, lamia baten gisan. Baineran burua ur azpian sartzeak lasaitzen ninduen, umetan. Orain bi dutxa dauzkagu etxean.

Amarekin gosaldut. Amak bere umetako kontuak kontatu dizkit. Gurasoak beti xextran ibiltzen zirela: mondeju beltza ala zuria ote zen hobe. *“Txurie”* esaten zuen Felipak, noski, eta beltza aitonak. Biak gustura jaten zituen berak eta ez zen bietako inori arrazoia ematen ausartzen. Izan ere, aitzakia ederra zen mondejuak jateko. Gutxitan jaten omen zituzten. Ez beltz eta ez zuri. *“Babarrunea bai, egunero. Beti beltza, sakramentu gutxikin”*. Amak beste garai batekoa dirudi.

Amak ez du nahi aitarekin bizitakorik berritserik. Eta are gutxiago nik bere hitzak grabatzerik. Baina pixkanaka-pixkanaka askatzen ari da. Ez nekien hiru aborturen ostean jaio nintzenik. Ezta ondoren beste bi abortu izan zituenik ere. Amak kotoi artean eduki ninduen, jaio nintzenetik. Esan didanez, obsesionatu egin zen ni zaintzearekin eta horrek arazoak sortu zizkion aitarekin. Ume mimatu bat izan naiz. Aitak ez zidan sekula eskurik gainean ipini. Eta hala ere ez nintzen

babestua sentitu. Etxetik joan nintzen. *“Goazen biok”*. Ezetz esan zidan amak. Ez zuela aita utziko. Eta joan egin nintzen.

“Erruduntasunak harri handienak baino gehiago pisatzen du”, arrazoi du nire psikologoak. Zulo beltz batetik irten ezinik egon nintzen bi urtean.

Baina dena ez da drama eta katastrofea. Eskua kaka artean sartuz gero, kaka ateratzen da. Herri guztietan, familia guztietan. Ez dut uste Ataun edo Zaldibia bereziki ilunak direlako denik. Edo gure familia. Ataun ez da Poltergeist. Denok dugu zuloa ipurdian eta iluna da.

12. IPUIE

SAN GREGORIOKO NESKA GAZTE BAT Aiako baserri batean zegoen neskame. Asteburuetan etxera joaten zen eta igandeetan buelta Aiara. Ez zuen bueltatu nahi izaten. Etxe hartan ez zegoen gustura, antza denez. Igande batean, sekula baino gogo gutxiago agertu zuen joateko. Amak derrigortu egin zuen: *“Joan eiñ behazu, joan eiñ behazu”*. Gogotxartuta ekin zion bideari eta Agamundako leizearen atarian geratu zen, hurritz arbola baten gainera igota hurrak hartzen. Gehiago ez omen zen haren notiziarik izan. Desagertu egin zen. Irristatu, eta leize ondoko amildegira erori ote zen... baina handik denbora batera haren behatz bat agertu zen erreka bazterrean, Arbeldiko zubi azpian. Behatz bat, eraztun eta guzti.

13. TROSKA III

ATAUNGO GENEALOGIA FEMINISTEN LIBURUTIK: *“Emakume batzuek sexua zikina dela uste izan dute bizi osoan eta haientzat, sexu-harremanak ugalketarako eta emazte ona izateko jasan beharreko trago txarra izan dira”*. Uste dut gure amaren kasua dela. Ez naiz galdetzera ausartu. Eta zenbat bikote egongo ote diren herrian, bizitza sexual eskasa dutenak. Zenbat. Baina hemen inor ez da bereizten.

Atzo bezero batekin tonteatzen egon nintzen, Troskan, eta aspaldiko partez tximeletak sentitu nituen sabelean. Imanol, elkarrekin ibili ginen eskolan; esan zidan beti izan naizela bere gustukoa. Guapo ikusi nuen nik ere. Potente dago. Ez da alferrik joaten bizikletan ibiltzera, egunero. Baina Maitanerekin dago ezkondata eta hiru ume dituzte. Hilabete daramat txortan egin gabe. Lau aste luze. Hilabete Jonekin egon gabe. Imanol ganbarara gonbidatzeko zorian egon nintzen, baina ez nuen egin. Gero edozein egunetan ikusi beharko nuke. Bera. Maitane. Umeak.

Psikologoarenean egon nintzen herenegun. Amari buruz hitz egin nion. Jonekin daukadan harremanari buruz ere bai. Beldurra diot konpromisoari. Nik erabaki nuen harreman askea nahi nuela, baina horrela ere ez naiz aske sentitzen. Berarekin geratu nahi dudanean, deitzen diodanean, eskatzen ari naizela iruditzen zait. Maitasun eskalea naizela. Ezin duela esaten badit, pentsatzen dut ez naizela lehentasuna berarentzat. Ez nauela behar beste maite.

Jonek geratzea proposatzen didanean, berriz, baietz esaten diot beti. Eta bere zerbitzura nagoela iruditzen zait. Bere menpe bezala. Neskamea, putatxoa. Badakit gaztaroko zauri bat dela. Uste dut deitu egingo diodala, eta geratzen saiatu. Bai, bere etxean, aurrekoan bezala. Ataunen ez, hori fijo.

Laugarren zigarroa. Furgoneta bat geratu da Paxkual iturriren ondoan. Pakete bat dakar. Ez du helbidea aurkitzen. Azkenaldian asko dabilta herrian bueltaka. Klik bakarrarekin, zapatilak Txinatik zuzenean irits daitezke Ataunera. Hori bai, Aiara ez dakit iritsiko diren; ‘teritorio komantxe’ izaten jarraitzen du: hiru aldiz txakur gehiago, pertsonak baino.

Amaiarekin afaldu nuen atzo. Ukendua da Amaia. Goxoa, alaia. Lasaia. Kuadrillakoekin ez naiz asko egon herrira iritsi nintzenetik. Umeak dituzte gehienek. Amaiak ere bai, bi seme. Baina hala

ere, ez dakit nola, astia ateratzen du nirekin egoteko. *"Bakizu, nahi zunen hemen nao"*. Eta badakit egia dela. Gurasoak kanpotarrak ditu: ama andaluziarra eta aita Zamorakoa. Baina nork esango luke... baserri puntan bizi da eta semeei hika hitz egiten die.

Amaiarentzat herri txikiak ez dira infernu handiak. Gustura dago arratsaldero parkean, umeekin jolasean. Inbidia ematen dit Amaiak. Irribarre horrekin eta begi txinpartatsu horiekin. Eta bere senar jatorrarekin. Inbidia ematen didate familia perfektuek. Nahiz eta badakidan ez direla existitzen.

Azkenaldian ni baino gazteagoekin egoten naiz asko. Giro ona dago herriko gazteen artean, garai batean baino hobea. Eskola bakarra dagoenetik bereziki: ez dago auzoen arteko lehengo lehiarik. Gazteak batuago daude. Politika kontuak ere baretu egin dira. Tentsio une asko eta borroka asko izan ziren herrian. PNVkoak eta HBkoak, elkarren kontra. Gogoan dut gure aitak muturra txikitu zion gizon hura... eta nahiago nuke ez gogoratu. Euri asko egin behar izan zuen espaloiko odol arrastoak desagertu arte.

14. “ALAMARTXOA”

MEZUA BIDALI DIO AXIERREK. Mikeli bihotza saltoka hasi zaio. Bezperan bere zakilaren argazki bat bidali zion, segundo gutxian desagertzen den horietakoa. Gurasoen etxean zegoen, haiekin bazkaldu zuelako, eta kafesnea sudur-zuloetatik atera zitzaion ia-ia. Esan zion gehiago halakorik ez bidaltzeko. Diskrezioa, jode! Illatitik atera eta disimuluz begiratu du mobila, izkina batera joanda. *“Gora San Juan berde! Sugeak eta zapoak erre!”*. Uf, eskerrak.

San Juan bezpera da. Urtero legez, afaria egingo dute Zaldibiako plazan. Herri afarirako txartelak hartu dituzte. Ostirala, eguraldi ona. Plaza leporaino beteko da. Herrian Austriako arkitekturako ikasle talde bat egon da, hamabost egunez, eta haiek egindako lanak ikusten egon dira arratsaldean. Proposamen politak egin dituzte. Axier burutik kendu ezinda dabil Mikel. Donostian geratu zirenetik, ez dute beste zitarik izan. Nahi du geratu, baina ezin du. Bere erritmoa errespetatuko duela esaten dio Axierrek. *“Poliki joango gaituk: slow sex”*. Baietz erantzuten dio Mikelek, bero-bero eginda. Gero ez da ausartzen. Blokeatu egiten da.

Saioa ere Zaldibiara etorri da. Maiderrekin eta haren lagunekin afalduko du, plazan ipiniko dituzten mahaietan. Etxetik eramango dute janaria. Entsalada, patata-tortilla, urdaiazpikoa... Kupela ipiniko dute plazan, sagardoarekin, nahi duenarentzat. Jai eskatu zuen Troskan. Ez zeukan gogorik egun horretan herrian geratzeko. Nahikoa izan zuen Gazte Festetan harrapatutako melokotoiarekin. Gainera, Zaldibiako “Alamartxo” ezagutzeko gogoia dauka. Dantzak, giroa. Maiderren etxean geratzeko da lotan.

Dantzariak piztu dute sua, suziriekin. Mikelek argazkia atera du eta Axierri bidali dio. “Sutan hemen ere”. Mikelek bidali dion San Gregorioko suaren erantzuna da: “Hasi nauk berotzen”. Axierrek esan dio solstizioko egunak aproposak direla geratzeko, egun magikoak direla eta animatzeko. “Gaur gauen Zaldibiara jungo nauk hire billa, nahi baduk, Slow”. Ez, ez, ez. Zaldibiara ez. Mikeli umetan bullyinga egiten zioten eskolan, potolotxo zelako eta betaurrekoak zituelako. “Marikoia izatea bakarrik falta zaik”, zioen bere artean. Marikoia, hitz itsusi hori. Baina ondo daki baietz, badela. “Hobe bihar, Donostian”, ausartu da; kitzikatuta bezain urduri dago Mikel. “Nere etxen?”, Axierrek. Puf, bale. “Bai”. “Seguru al hago, Slow?”. Ez, baina ezin dio Axierri ihes egiten utzi. “Oraingon bai, Fast”.

Dantzak asko gustatu zaizkio Saioari. Umeak eta nagusiak suaren bueltan. Dantzari herria da Zaldibia, bai. Sua ez da oso handia. Handiagoa espero zuen. Baina tamaina horretakoa izatea komeni da, gero suaren gainetik salto egin ahal izateko. Hipnotizatuta begiratu dio suari. Urteko gauza txarrak sutara bota eta erretzeko unea da. Azken asteetan buruan izan dituen emakume guztiekin gogoratu da. Orion hil duten emakumea. Santa Agedan zoratu zen neska. Moja bidali zutena. Lizarrustira bidean hil zena. Jaio orduko umea kendu zietenak. Bortxatu zituztenak. Desagertu zirenak. Atxilotu zituztenak. Tratu txarrak jasaten dituztenak. Gogorik gabe oheratzen direnak.

Erritualak beharrezkoak dira batzuetan. Aurrera egiteko. Esan diotenez, familiako ardi beltzei tokatzen zaie arbasoen minei begiratzea, memoriak sendatzeko. “Zuengatik, guregatik”, esan du Saioak ahoz behera, “elkarrekin aurrera”. Ez du errimatzen, ez daki zentzurik daukan, baina atera zaiona da: “Su berriak argitu gaitzala”. Derrepente argi ikusi du ikerketa emakume ekintzaileei buruz egingo duela: bai, ekintza txikiekin gizartea aldarazi duten emakumeak elkarriketatuko ditu. Iluntasunean su txikiak piztu dituztenak.

Herriko neska-mutikoak su txingarren gainetik saltoka ari dira. Saioak ere salto egin nahi du. Errazagoa izango litzateke ume baten aitzakia balu, baina Maidarren alaba, Aiora, ez da animatu. Salto bakar bat egiteko asmoa zuen, sufritu duten emakume guztiengatik, baina gustatu egin zaio, eta emakume bakoitzari salto bat eskaintzea erabaki du. Jendea begira daukala konturatu da Saioa, baina berdin dio. Gero eta salto handiagoak egiten ari da. Besoak altxatuta, hankak zabalik. Irrintzi bat ere bota du. Ahotsa altxatzera, plazara ateratzera ausartu ez diren emakume guztiengatik.

Mikelek bideoan grabatu du, eta Axierri bidali dio. Segituan jaso du erantzuna:

—Aiba, Saioa dek eta, nere lehengusue!